



Jokin Bildarratz

«Udalak kontuan hartzen ez dituzten politikek jai dute»

EAJko kide eta Tolosako alkate da Jokin Bildarratz (Tolosa, 1963). Lehenago Madrilgo Senatuan eta Eusko Legebiltzarrean ibili izan da hainbat urtez. Egun, Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) elkarte-buru da. Erakunde horren ordezkari gisa hitz egin du Udalerrien Legeaz eta udalgintzaz.

Urko Apalaza

Argazkiak: Dani Blanco

EUDEL-en duen karguagatik hara eta hona ibiltzen den arren, Tolosako udaletxean du Jokin Bildarratzek lantokia, argi utzi nahi izan du hori elkarriketaren amaieran: “Tolosarrekin aukeratu ninduten eta Tolosako alkate naizelako nago EUDEL-en, hori lehenesten dut”.

Esan izan duzu udalei “gol” asko sartu izan dizkietela. Beraienak ez diren eskumenak hartu dituzte euren aurrekontuen kargu, erabakigune nagusietan ere ez dira izan... Arduratsuak edo arduragabeak izan dira udalak?

Ez da bakarrik gola sartu digutenen errua, gurea ere bada. Baina prozesu bat izan da, duela 30 urteko eta oraingo udalen kontzientzia politikoa ez da bera. Udalek ez dute inolako babes juridiko formalik, baina pixkanaka dagokien espazioa irabazi eta lehen mailako erakunde bihurtu dira. Adibidez, Zapateroren *PlanE*-k edo zazpi mila lanpostu sortzeko Eusko Jaurlaritzaren asmoak udalak dituzte oinarri, badakitelako oso modu errazean iritsiko direla herritarrengana. Gaur egun edozein erakundek bere politikak modu eraginkorrez aplikatu

nahi baditu, udalak hartu behar ditu kontuan, bestela jai du.

Babes juridiko falta aipatu duzu eta hain zuzen Udalerrien Legeak arautu nahi du hori. Aurreko agintaldian proiektua ez zen aurrera atera Bizkaiko eta Arabako diputazioekin desadostasunak izan zirelako.

Arbitraje Batzordera jo zuten LHLa-ren (Lurralde Historikoen Legea) hainbat gauza urratzen zituelako.

Orain, gainera, Eusko Jaurlaritzak kolore ezberdina du eta EUDELek aldiz

eskatu du erakunde guztiak egon daitezela legea eztabaidatuko duen batzordean... akordioak ez du erraza ematen.

Ulertarazi nahi dugu udalek ez dutela merezi kobertura juridikorik ez edukitzea, egin dezatela arduradunek egin beharrekoa hori gehiago luzatu ez dadin. Hori bai, hainbeste urte eta gero, nahi ez duguna da boto baten alde Legebiltzarrean Legea ahulegi ateratzea, erakunde guztien inplikazio baikorra behar dugu.

Hori teoria da, baina praktikan ikusi da diputazioak ez daudela prest...

Baina Arbitraje Batzordeak arrazoi eman die diputazioei, eta puntu horiek zuzendu beharko dira orain. Hori konponduta dago. Hortaz aparte, aurreko proiektuak bazuen oinarritzko akats bat: ez zen erakunde guztien arteko batzorderik sortu lana pixkanaka egiteko.

Aurrekaria ikusita, ez al da EAJ lotsa-gorriturik aterako Legea onartzen bada?

Ez zait iruditzen. Orain arte Legerik atera ez bada, guztion erruagatik da, alderdi sozialista ere Gobernuan egon izan da. Denok ditugu ardurak.

Uda hasieran alarma jo zenuten, urte bukaeran udalen erdiak zenbaki gorritan bukatzeko arriskua zuela esanez. Urte bukaera iritsi da, zein da oraingo diagnostikoa?

Ordukoaren berdina, nahiz eta zenbait neurri hartu diren.

Besteak beste, funts bat osatzea. Gureak ez diren eskumenengatik



500 milioi euroko defizita dugu urtean udalok. Horregatik, horiek gestionatzeko diru-sarrera bat eskatu genuen eta lehendakariak baldintzatu gabeko 50 milioi euroko kantzitatea emango zuela anuntziatu zuen. Horretan kritiko izan behar dugu, ez baita betetzen ari. 50 milioi horietatik 30 besterik ez dira egitan baldintzatu

“Beldur naiz Jaurlaritzak emandako 50 milioi euroen banaketa ez dela ekitatiboa izango. Zalantzak ditut hainbeste kostatako orekak errespetatuko ote dituzten”

gabekoak. Gainera, beldur naiz banaketa ez dela ekitatiboa izango.

Zergatik?

Foru funtsek, adibidez, herri txikiak lehenesten dituzte. Zuk ematen badiozu 600 euro biztanleko Bilbo-ko Udalarari eta kopuru bera ematen badiozu Oresakoari, ez da berdina. Herri txikiak minimo batzuk bete behar dituzte eta gehiago eman behar zaie, oreka horrekin jotzen da. Bada, zalantzak ditut hainbeste kostatako orekak errespetatuko ote dituzten.

Udalerrien Legea Gobernu berriaren lehenengoa izango omen da... Konponduko al du udalen oraingo larritasuna, edo berandu etorriko da?

20. URTEBETETZE OSPAKIZUN BIRA
ORAIN CD BIKOITZ ETA DVD-AN
EZ GALDU EMOZIOZ ETA SENTSAZIOZ
BETERIKO KONTZERTU HAU BIZITZEKO
AUKERA

GARAI GUZTIETAKO ABESTIAK: AMAREN
NEGARRA, FAGOZITOSIA, HAIKA MUTIL,
BASAMORTUETAKO ZALDUNA, EKAITZA
ETA BAREALDIA, DENAK ITSUAK OTE?,
LANIK ZAILENA, AMETS BATEN BEZALA,
JO TA KE, MARI...

Sutagar
20 URTE

HURRENGO KONTZERTUAK:

ABENDUAK 19 LARUNBATA
AGINAGA ELIZA ZAHARREAN

ABENDUAK 23 ASTEAZKENA
BILBO KAFE ANTZOKIAN

JO TA KE EKOIZPENAK
KONTRATAZIOA: 619 116 974
WWW.SUTAGAR.COM



“Ni ez naiz hain optimista, Udalerrien Legea Legebiltzarrean datorren urtean sar liteke, baina ez dakit datorren urtean aurrera aterako den, giro aurre-elektoral batean izango gara ordurako. Gainera, asko erreflexionatu behar da.”

Ni ez naiz hain optimista, Legebiltzarrean datorren urtean sar liteke, baina ez dakit datorren urtean aurrera aterako den, giro aurre-elektoral batean izango gara ordurako. Gainera, asko erreflexionatu behar da: Erkidego honetan herrien %80ak 5.000 biztanle baino gutxiago du, eta biztanleriaren %10 baino ez da bizi %80 horretan. Nola bermatu guztien eskubideak? Danimarkak berealdiko erreboluzioa egin du: 17 probintzia eta 298 herri ziren lehen, eta orain 5 erregio eta 91 herri dira.

Esaten ari zara horrelako operazio bat egin beharko litzatekeela hemen? Ez, zeren-eta Danimarkan eragin-kortasuna lehenetsi dute eta norta-

sunak albo batean utzi, beste modu batera bizi dutelako-edo. Hemen nortasuna ere kontuan eduki behar da. Pertsonalki gehiago gustatzen zait sistema finlandiarra: lege bat sortu dute udalerriak behartuz mankomunitateak osatzera zenbait zerbitzu emateko. Adibidez, tolosaldean 28 herri gara, ez da posible 28 ongizate zerbitzu ematea; antolatatu ditzagun bi, baina onak. Horren inguruan hemen ere erreflexionatu beharko genuke, baina egia da sosegu politiko handirik ez dugula horretarako.

Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu duzue “Euskal Y” dela-eta, baina ordezkatzeko al du EUDELe Y-

arekin ados ez dauden udalen iritzia? “Y”a egingo da, bai ala ez?

(...)

Hemengo erakundeek horrela erabaki dute eta egin egingo da. Gure lan hipotesia hori bada, zer egiten du alkate batek horren aurrean? Adibidez, etxe bat bota behar badute. Pankartan jar liteke eta esan “ni bizilagun horrekin ez naiz mugituko”. Aukera bat da. Edo saiatu daiteke beste lur batzuk bilatzen eta bizilagunaren bizi-baldintzak mantentzen. EUDELtik zer esan dugu? Goazen azken horretara. Hitzarmenaren ideia hori bulego honetan jaio zen. Tolosako zati txiki baten proiektua ekarri zuten Hirigintza batzordera,



Galdakao

Abenduaren 17tik 23ra, Muguru

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Enplegu transferentzia: Lopez *ninguneatua*

“Ni erabat harrituta geratu naiz. Mundu guztiak zekien adostasun bat zegoela transferentzia irailera atzeratzeko eta bera ez da horretaz ohartu... Hala ere, bagenekien euskal sistema ez zegoela prest hori gestiona-tu ahal izateko. Udaletan enplegu zerbitzuetan 168 langile baino gehiago dauzkagu eta gurekin ez da inor harremanetan jarri, eta hau teoriar urtar-rilaren 1ean zen martxan jartzekoa... Zer egin behar genuen orain arte lanean aritu diren 168 langile horiekin? Edo alderdi sozialistaren barruan ez du inolako paperik jokatzeko eta *ninguneatu* egin dute, edo tristeago litzatekeena, ez daki herri honen interesak gestionatzeko”.



eta holako alturako kaxa pilotik [kei-nua egin du] folio bakarreko txostena aurkeztu zidaten hemengo teknikariek. Konklusioa? Agian udaletan ez gaude teknikoki preparatuta kaxa horiei guztiei aurre egiteko... Orduan Jaurlaritzari proposatu genion EUDELetik ematen dugun babes juridikoa eta informatiboa ordaintze-ko, eta hori da Jaurlaritzak gestiona-tzen duen zatirako lortu duguna.

Herrietan puri-purian dagoen beste gai bat zabor bilketarena da. Usurbilgo datuen arabera, atez atekoak birzikla-tze tasa oso handia lortzen du, zerga-tik ez zabaldu beste udalerrietara?

Gai hori aspaldi jorratu da, Gipuzko-ako Batzar Orokorrekin PIGRUG-aren bidez estrategia bat onartu zuten eta ondorioz Hondakinen Partzuergoa sortu da. Partzuergoak erraustegiaren garapenaren alde egin du eta nik uste horri heldu behar zaiola.

Baina esperientzia batek erakusten badu posible dela zaborrak beste modu batera kudeatzea... Erabakiak ez du zergatik irmoa izan behar, ezta? Estrategia kontua da. Badakit Par-tzuergoan neurtu dutela atez atekoa, baina ez badute orokorrean bidera-garria ikusi, ez dago beste bueltarik. Dena den erraustegiaren inguruan eztabaida interesatuak egin dira, ikus-pegi oso ezkorra eman diote, baina hori gaundituta dago.

Gaundituta dago?

Nik uste baietz, edo behintzat Par-tzuergoan gaunditutzat eman dute. Hala ere bizirik dauden eztabaidak dira eta oso baikorrak iruditzen zaizkit, baina eztabaidarako guneak erabiltzen baldin badira. Eta hain

zuzen horien erabileraren ondorioz hartu dira erabakiak.

Alkate sozialistak behin baino gehia-gotan azaldu dira prentsan, eta Barne sailburuarekin ere bildu dira... Zalan-tzan ikusten duzu zure ordezkari-tza?

Ez. Pasatzen dena da nahastu egiten dituztela erakundeen jarrera alderdia-renarekin. Erakunde baten izenean bazaude, zaude herritar guztiak ordezkatzeko. Puntu final. Inoiz ez da gertatu herri honetan gobernukide bat biltzea alderdi konkretu bateko alkateekin; ez zait txukuna iruditzen.

Udan istilu ugari izan zen herrietako jailetan. Zure ustez apologia al da pre-soen argazkiak erakustea?

Niri ez zait tokatzen hori neurtzea, gu horretan ez gara sartu. Gai honi behar baino bozgorailu handiagoa eman zaio eta Barne Sailarekin akor-datu dugun protokoloaren puntu garrantzitsuenetakoa da gauza hauek modu zuzenagoan konpondu behar direla. Legea urratzen ote den zalan-tzak daudela? Hori ez da gure kon-tua, epailearena baiziki.

Ordenantza bat ere prestatzen ari zarete txosnen inguruan.

Ordenantza-marko bat eskainiko zaio udal bakoitzari egungo legedia betez. Kasu honetan Terrorismoa-

“Askotan herri honetan komunikabideek titular handiak ematen dituzte, baina ikuspegi baikor batetik begiratuta txosnak elementu inportanteak dira herria girotzeko”

ren Biktimen Legea errespetatu beharko da.

Eta neurri horiek guztiek zer puntuta-raino eragotziko dute datorren urtetan istiluak egotea?

Ez luke beharko. Baldin eta ez bada-go atzean txosna muntatu duenaren borondate politikoa horrela izan dadin. Askotan herri honetan komu-nikabideek titular handiak ematen dituzte, baina ikuspegi baikor batetik begiratuta, txosnak elementu inpor-tanteak dira herriak girotzeko, eta pentsatu behar da nola antolatuko garen legedia errespetatuz festak ondo pasa nahi baditugu.

Udaletan nabarmentzen den beste arazo bat ilegalizatu-tako zerrendak dira. Udal hauteskunde giroa hasi gara jada sumatzen... zer etorkizun ikusten diozu egoera anormal horri?

Badirudi jasotzen hasi garela hainbat mezu baikor eta gatazkaren irtenbi-derako oinarri moduko batzuk jar-tzen ari direla. Hori oso positiboa da. Baina Alderdien Legea hor dago, eta ni oso pesimista naiz alde horre-tatik, Garbi dago alderdien legea nahi izan den bezala erabili izan dela, 2002an onartu zen, ni Senatuan nen-goanean, 2007an zerrenden erdiei ez eta beste erdiei bai utzi zitzaizen aur-keztzen... Uste dut ETak armak uzten ez baditu, 2011n ez dutela aurkezteko aukerarik izango, eta horren inguruan ezker abertzaleari galdetu beharko zaio zer egiteko prest dagoen. Azken finean beraiek ez aurkezte guztiontzako arazoa da, baina gehienbat herritarrentzat, hainbat herritarrek ez baitute beren ideologia gertuena duten erakun-dean islaturik aurkitzen. **n**